

## **Barra-barra marka ezagutarazteko kanpaina jarri du abian Andoaingo Udalak**

Euskaraz Barra-barra marka duela hiru urte sortu zuten Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakundeak, eta, beraz, Euskal Herri osoan zabaldu den eta zabaltzen jarraitzen duen marka da. Marka hori duten saltoki, erakunde eta bestelako guneetan, bezero euskaldunei adierazten zaie leku horietan euskaraz egin dezaketela.

Barra-barra eskuratzeko gutxieneko baldintza da bereizgarria duen saltokiko langileek bezero euskaldunaren mezuak ulertzea; alegia, bezero hori hizkuntza aldatzera ez behartzea. Hala, Barra-barra marka duten saltoki, erakunde eta bestelako guneetan bermatuta dago, gune hori jendearentzat zabalik dagoen bitartean, gutxienez langile batek baduela euskaraz ulertzeko gaitasun nahikoa.

Andoainen ere duela hiru urte hasi zen Udaleko Euskara Zerbitzua Barra-barra marka zabaltzen, eta jadanik 100 saltokik dute bereizgarria. Guztira, 226 merkataritza-establezimendu daude Andoainen, eta, beraz, ia erdiek dute gaur egun Barra-barra marka. Izan ere, Andoaingo datu soziolinguistikoek arabera, andoaindarren % 73,1ek euskara ulertzeko gaitasuna du. Beraz, agian uste baino jende gehiagok ulertzen du euskara.

Hala eta guztiz ere, uste da andoaindar askok ez dutela ezagutzen Barra-barra marka. Hori dela eta, marka ezagutzera emateko asmoz, kanpaina bat jarri du abian Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak. Hain zuzen, Euskara Barra-barra zer den eta Andoaingo datuak zein diren azaltzen duen euskarri bat egin du. Barra-barra duten 100 saltokietan jarriko da euskarria, ondo ikusten den leku batean, bezeroek horren berri izan dezaten. Horrez gain, Barra-barra marka duten Andoaingo taberna eta jatetxeetan, ahozapitako batzuk banatuko dira, aipatutako informazioarekin.

Bukatzeko, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak onartu berri ditu saltokien kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazioa eta hizkuntza-paisaia eta, halaber, webgune edo programa informatikoak euskara hutsean edo elebitan jartzeko dirulaguntzak. Eta horrez gain, euskara ikasteko % 100 arteko dirulaguntzak eskaintzen dira. Informazio gehiago [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) webgunean edota udaleko Euskara Zerbitzura deituta.

**Andoain, 2025eko apirilak 14**

## **El Ayuntamiento de Andoain ha puesto en marcha una campaña para dar a conocer la marca Barra-barra**

La marca Euskaraz Barra-barra fue creada hace tres años por el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra y el Instituto del Euskera de Iparralde, por lo que es una marca que se ha extendido y sigue extendiéndose por toda Euskal Herria. En los comercios, instituciones y otros espacios con esta marca, se indica a las y los clientes euskaldunes que en esos lugares pueden hablar en euskera.

El requisito mínimo para acceder a la marca es que el personal del establecimiento comprenda los mensajes del cliente euskaldun, es decir, que no le obligue a cambiar de idioma. Así, los comercios, instituciones y otros espacios con la marca Barra-barra garantizarán que, mientras este espacio esté abierto al público, al menos una o un trabajador tiene la capacidad suficiente para entender euskera.

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoain comenzó hace tres años a difundir la marca Barra-barra, y ya son 100 los comercios que tienen el distintivo. En total, hay 226 establecimientos comerciales en Andoain, por lo que casi la mitad tienen actualmente la marca Barra-barra. De hecho, según los datos sociolingüísticos del municipio, el 73,1% de los andoaindarras tiene capacidad para entender euskera. Así que quizá hay más gente que entiende euskera de lo que se piensa.

A pesar de ello, se cree que muchos andoaindarras desconocen la marca Barra-barra. Por ello, con el objetivo de darla a conocer, el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoain ha puesto en marcha una campaña. En concreto, ha elaborado un soporte que explica qué es Euskara Barra-barra y cuáles son los datos de Andoain. El soporte se colocará en los 100 puntos de venta que dispongan de la marca, en un lugar bien visible, para el conocimiento de las y los clientes. Además, en los bares y restaurantes, se repartirán algunos servilleteros con la información citada.

Por último, el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoain ha aprobado recientemente la rotulación exterior e interior de los comercios y el paisaje lingüístico, así como las subvenciones para la instalación de webs o programas informáticos íntegramente en euskera o bilingüe. Y también se ofrecen subvenciones de hasta el 100% para aprender euskera. Más información en [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) o llamando al Servicio de Euskera del Ayuntamiento.

**Andoain, 14 de abril de 2025**